

GIPUZKOAKO LURRALDE HISTORIKOKO
XEDAPEN OROKORRAK

1

DISPOSICIONES GENERALES DEL
TERRITORIO HISTÓRICO DE GIPUZKOA

GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA

OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA

Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2018rako aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko onartzen dituen jarraibidea.

Gipuzkoako Foru Aldundiko Diputatuen Kontseiluak, 2017ko azaroaren 7an egindako batzarraldian, ondoko erabakia hartu zuen.

1/2013 Foru Arauak, 2013ko otsailaren 8koak, Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan finantza tutoretzaren eskumena garatzekoak, amaierako bigarren xedapenean, ahalmena ematen dio Diputatuen Kontseiluari, Gipuzkoako toki entitateek urte bakoitzeko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko jarraitu beharreko erregelak ezarri ditzan erabaki bidez, betiere aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera.

Hori hala izanda, eta aipatutako amaierako bigarren xedapenak aurreikusitako Gipuzkoako Finantzen Kontseiluaren txostena ikusi ondoren, Diputatuen Kontseiluak, Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuak proposatuta, eta eztabaidatu ondoren,

ERABAKI DU

Lehenengoa. Jarraibide bat onartzea, ezartzen dituen Gipuzkoako toki entitateek jarraitu beharreko erregelak 2018ko aurrekontuak prestatu, onartu eta gauzatzeko, betiere aurrekontu egonkortasunari eta finantza iraunkortasunari buruzko arauditik eratorritako defizitari eta zor publikoari lotutako helburuak betetze aldera.

Jarraibide hori erabaki honen eranskin gisa jaso da.

Bigarrena. Ahalmena ematea Ogasun eta Finantza Departamentuko foru diputatuari erabaki hau gauzatzeko beharrezkoak diren neurriak hartzeko.

Hirugarrena. Erabaki hau argitaratzea Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN.

Donostia, 2017ko azaroaren 9a.—María Jesús Pérez Garciaarena, Departamentuko idazkari teknikoa.

(7813)

JARRAIBIDEA

Finantza tutoretzaren eskumena garatzeko Gipuzkoako toki entitateen aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren alorretan.

1. *erregela.* Aurrekontu egonkortasunaren helburua.

1. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2018ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiek bete beharreko helburua izango da defizita zero

DIPUTACIÓN FORAL DE GIPUZKOA

DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

Instrucción con las reglas que las entidades locales de Gipuzkoa deberán seguir en la elaboración, aprobación y ejecución de los presupuestos del año 2018.

El Consejo de Gobierno Foral de la Diputación Foral de Gipuzkoa, en sesión de 7 de noviembre de 2017, adoptó el siguiente acuerdo:

La Normal Foral 1/2013, de 8 de febrero, por la que se desarrolla la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa, en su disposición final segunda, habilita al Consejo de Gobierno Foral para establecer, mediante acuerdo, las reglas que las entidades locales de Gipuzkoa deberán seguir en la elaboración, aprobación y ejecución de los presupuestos de cada año para dar cumplimiento a los objetivos de déficit y de deuda pública derivados de la normativa de estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad financiera.

En su virtud, visto el informe del Consejo Territorial de Finanzas de Gipuzkoa previsto en dicha disposición final segunda, a propuesta del diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas, y previa deliberación, el Consejo de Gobierno Foral,

ACUERDA

Primero. Aprobar una instrucción con las reglas que las entidades locales de Gipuzkoa deberán seguir en la elaboración, aprobación y ejecución de los presupuestos del año 2018, para dar cumplimiento a los objetivos de déficit y de deuda pública derivados de la normativa de estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad financiera.

Dicha instrucción se adjunta como anexo al presente acuerdo.

Segundo. Facultar al diputado foral del Departamento de Hacienda y Finanzas para adoptar cuantas medidas sean necesarias para la ejecución de este acuerdo.

Tercero. Publicar el presente acuerdo en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 9 de noviembre de 2017.—La secretaria técnica del Departamento, María Jesús Pérez Garciaarena.

(7813)

INSTRUCCIÓN

Para el desarrollo de la competencia de tutela financiera en materia de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera de las entidades locales de Gipuzkoa.

Regla 1. Objetivo de estabilidad presupuestaria.

1. Respecto a la estabilidad presupuestaria, el objetivo a cumplir en el ejercicio 2018 por todas las entidades incluidas en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013 será el déficit

izatea, finantzaketa ahalmena edota premiaren bitartez neur-tuta, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioari jarraituz.

Magnitude hori zehazteko, honakoa hartuko da kontuan:

– Entitatea aurrekontu eta kontabilitate publikoa eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia honakoen arteko diferentziaren bitartez kalkulatu da: Aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetak sarreraren eta aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetak gastuen artekoa. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarririk duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

– Entitatea enpresen Kontabilitate Plan Orokorra eramatera behartuta badago, finantzaketa ahalmena edota premia Galeralabazien Kontuaren emaitzaren bitartez kalkulatu da. Horrez gain, kalkulatu nahi den magnitudean eragin adierazgarririk duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena. Hala ere, helburuaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren ordez, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatuan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udalbatzari.

Plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharra zehazteko, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

2. Aurrekontuen egonkortasunari dagokionez, 2018ko ekitaldian, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitate guztiak bete beharreko helburua izango da oreka finantzarioa izatea. Ondorio horretarako, oreka finantzariotzat ulertuko da galerarik ez izatea, entitate bakoitzari aplikagarria zaion kontabilitate planaren arabera.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aipatutako entitateek apartatu honetan ezarritako helburua betetzen ez badute plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Plan ekonomiko-finantzario bat egiteko betebeharra zehazte aldera, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2018ko urteko kontuen bidez egiaztatuko da entitate guztientzat, horiek banaka hartuta.

2. erregela. Zor publikoaren helburua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiak bete beharreko helburua izango da 2018ko abenduaren 31ko zor bizia ez izatea 2018an likidatutako sarrera arrunten % 75 baino handiagoa.

Ondorio horretarako, zor bizia kalkulatzeko kontuan hartuko dira 2018ko abenduaren 31n indarrean ziren eragiketa guztiak, ekitaldian exekutatuak abalak barne, eta horri gehituko zaizkio hitzartu diren eta erabili gabe dauden eragiketak eta kenduko zaizkio ekitaldian itzulitako abalak. Magnitude horretan ez dira kontuan hartuko Udalak Finantzatzeko Foru Funt sarengatik (UFFF) itzuli gabe gelditzen diren saldoak.

Erregela honetan ezarritako helburua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kon-

zero, medido en términos de capacidad o necesidad de financiación, de acuerdo con la definición contenida en el Sistema Europeo de Cuentas Nacionales y Regionales.

Para la determinación de dicha magnitud, se tomará en consideración lo siguiente:

– En caso de que la entidad esté obligada a llevar presupuesto y contabilidad pública, la capacidad o necesidad de financiación se calculará mediante la diferencia entre los ingresos de los capítulos 1 a 7 y los gastos de los capítulos 1 a 7 del presupuesto. Además, en caso de que exista alguna operación con incidencia significativa en la magnitud a calcular, se realizará el correspondiente ajuste.

– En caso de que la entidad esté obligada a llevar el Plan General de Contabilidad de las empresas, la capacidad o necesidad de financiación se calculará a través del resultado de la Cuenta de Pérdidas y Ganancias. Además, en caso de que haya alguna otra operación con incidencia significativa en la magnitud a calcular, se realizará el correspondiente ajuste.

El cumplimiento del objetivo establecido en este apartado habrá de verificarse para cada administración local, una vez consolidadas sus cuentas. A estos efectos, el perímetro de consolidación lo constituyen las entidades incluidas en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013.

Las entidades locales que no cumplan el objetivo establecido en este apartado deberán formular un plan económico-financiero, que abarcará, como mínimo, el periodo 2019-2021, y que garantice la corrección de la situación en el año en curso y el siguiente. No obstante, en caso de que el incumplimiento del objetivo se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, dicho plan se sustituirá por la comunicación al Pleno prevista en el párrafo tercero del artículo 5 de la Norma Foral 1/2013.

A efectos de determinar la obligación de elaborar un plan económico-financiero, el cumplimiento del objetivo establecido en este apartado se constatará con la liquidación del presupuesto del año 2018.

2. Respecto a la estabilidad presupuestaria, el objetivo a cumplir en el ejercicio 2018 por todas las entidades incluidas en el artículo 1.2.b) de la Norma Foral 1/2013 será alcanzar el equilibrio financiero. A estos efectos, se entenderá por equilibrio financiero el hecho de que no se produzcan pérdidas, según el plan de contabilidad aplicable a cada entidad.

Las entidades incluidas en el artículo 1.2.b) de la Norma Foral 1/2013 que no cumplan el objetivo establecido en este apartado deberán formular un plan económico-financiero, que abarcará, como mínimo, el periodo 2019-2021, y que garantice la corrección de la situación en el año en curso y el siguiente.

A efectos de determinar la obligación de elaborar un plan económico-financiero, el cumplimiento del objetivo establecido en este apartado se constatará para todas las entidades, individualmente consideradas, con las cuentas anuales de 2018.

Regla 2. Objetivo de deuda pública.

El objetivo a cumplir por todas las entidades incluidas en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013 será tener a 31 de diciembre de 2018 una deuda viva no superior al 75 % de los ingresos corrientes liquidados en 2018.

A esos efectos, en el cálculo de la deuda viva, se tomarán en consideración todas las operaciones vigentes a 31 de diciembre de 2018, incluidos los avales ejecutados en el ejercicio, y al resultado obtenido se agregarán las operaciones formalizadas y no dispuestas y se deducirán los avales reintegrados en el ejercicio. En dicha magnitud no se incluirán los saldos pendientes de devolución por el Fondo Foral de Financiación Municipal (FFFM).

El cumplimiento del objetivo establecido en esta regla habrá de verificarse para cada administración local, una vez consoli-

tuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Zorren helburua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena. Plan horretan jasoko den zor murrizketaren bilakaerak bermatu beharko du 2020an zorren ratioa % 70 baino handiagoa ez izatea.

Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharrak zehazte aldera, apartatu honetan jarritako helburua bete izana 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

3. erregela. Gastuaren araua.

1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitate guztiak bete beharreko helburua izango da 2017ko eta 2018ko urteen artean gastu konputagarriaren bariazioa % 2,4 baino handiagoa ez izatea.

Gastu konputagarria zehazteko, enplegu ez-finantzarioetatik abiatu beharko da, Nazio eta Eskualde Kontuen Sistema Europarrean jasotako definizioaren arabera neurtuta, eta horietatik kenduko dira bai interesak, bai beste herri administrazio batzuetatik datozen sarrera finalistekin finantzatutako gastuaren zatia.

Enplegu ez-finantzarioak zehazteko, berriz, aurrekontuko 1etik 7ra bitarteko kapituluetakoa gastuak hartuko dira oinarritzat. Horrez gain, enplegu ez-finantzarioetan eragin adierazgarriarik duen bestelako eragiketarik egongo balitz, dagokion doiketa egingo da.

Diru-bilketaren hazkunde iraunkorrak dakartzaten araudi aldaketak onartzean edota bilketan eragin positiboa izango duten kudeaketa neurriak aplikatzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean handitu ahal izango da 2018an. Era berean, diru-bilketaren murrizketa iraunkorrak dakartzaten araudi-aldaketak onartzean, gastu konputagarriaren maila neurri berean gutxitu beharko da 2018an.

Gastuaren araua betetzen dela egiaztatu beharko da toki administrazio bakoitzean, behin haren kontuak bateratu ondoren. Ondorio horretarako, bateratze esparrua 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aipatutako entitateek osatzen dute.

Gastuaren araua betetzen ez duten toki entitateek plan ekonomiko-finantzarioa egin beharko dute, gutxienez 2019-2021 epealdia aurreikusiko duena, eta jarduneko urtean edota hurrengoan egoera zuzenduko dela bermatuko duena.

Hala ere, arauaren ez-betetzea diruzaintzako gerakina erabiltzearen ondorioz gertatu bada, planaren orde, 1/2013 Foru Arauaren 5. artikulua hiru garren apartatuan aurreikusitako komunikazioa egin beharko zaio Udaltzari.

Plan ekonomiko-finantzario bat onartzeko betebeharrak zehazteko, gastuaren araua bete izana 2018ko aurrekontuaren likidazioaren bidez egiaztatuko da.

4. erregela. Kontu hartzailearen txostena.

Toki entitateko kontu hartzaileak txosten bat egin beharko du aurrekontu egonkortasunaren eta finantza iraunkortasunaren helburuak eta gastu araua betetzeari buruzkoa.

Aipatutako txosten hori aurrekontua onartzean, aldatzean eta likidatzean egin beharko da.

Aurrekontuaren onarpena eta aldaketak direla-eta egindako txostenen konklusioetatik ez da derrigorrez ondorioztatuko plan ekonomiko-finantzario bat prestatzeko beharra. Baldin eta likidazioaren bidez egindako txostenaren ondorioek agerian uzten badute ez direla bete aurrekontu egonkortasunari eta finantza

dadas sus cuentas. A estos efectos, el perímetro de consolidación lo constituyen las entidades incluidas en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013.

Aquellas entidades locales que no cumplan con el objetivo de deuda deberán formular un plan económico-financiero, que abarcará, como mínimo, el periodo 2019-2021. La evolución de la reducción de deuda prevista en dicho plan garantizará que el ratio de la deuda en el año 2020 no sea superior al 70 %.

A efectos de determinar la obligación de aprobar un plan económico-financiero, el cumplimiento del objetivo establecido en este apartado se constatará con la liquidación del presupuesto del año 2018.

Regla 3. Regla de gasto.

El objetivo a cumplir por todas las entidades incluidas en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013 será que la variación del gasto computable entre 2017 y 2018 no supere el 2,4 %.

Para la determinación del gasto computable, se tomarán como punto de partida los empleos no financieros, medidos de acuerdo con la definición contenida en el Sistema Europeo de Cuentas Nacionales y Regionales, y de ellos se detraerán tanto los intereses como la parte correspondiente al gasto financiado con ingresos finalistas provenientes de otras administraciones públicas.

Por su parte, para la determinación de los empleos no financieros, se tomarán como base los gastos de los capítulos 1 a 7 del presupuesto. Además, en caso de que existiera alguna otra operación con incidencia significativa en los empleos no financieros, se realizará el correspondiente ajuste.

Cuando se aprueben cambios normativos que supongan aumentos permanentes de la recaudación o se apliquen medidas de gestión con impacto recaudatorio positivo, el nivel de gasto computable podrá aumentar en el ejercicio 2018 en cuantía equivalente. Asimismo, cuando se aprueben cambios normativos que supongan disminuciones permanentes de la recaudación, el nivel de gasto computable deberá disminuirse en el ejercicio 2018 en cuantía equivalente.

El cumplimiento de la regla de gasto habrá de verificarse para cada administración local, una vez consolidadas sus cuentas. A estos efectos, el perímetro de consolidación lo constituyen las entidades incluidas en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013.

Las entidades locales que no cumplan la regla de gasto deberán formular un plan económico-financiero, que abarcará, como mínimo, el periodo 2019-2021, y que garantice la corrección de la situación en el año en curso y el siguiente.

No obstante, en caso de que el incumplimiento de la regla se produzca como consecuencia de la utilización del remanente de tesorería, dicho plan se sustituirá por la comunicación al Pleno prevista en el apartado tercero del artículo 5 de la Norma Foral 1/2013.

A efectos de determinar la obligación de aprobar un plan económico-financiero, el cumplimiento de la regla de gasto se constatará con la liquidación del presupuesto del año 2018.

Regla 4. Informe de Intervención.

La Intervención de la entidad local correspondiente elaborará un informe sobre el cumplimiento tanto de los objetivos de estabilidad presupuestaria y de sostenibilidad financiera, como de la regla de gasto.

Dicho informe se elaborará en la aprobación, modificación y liquidación del presupuesto.

De las conclusiones de los informes elaborados con motivo de la aprobación y modificaciones del presupuesto no derivará obligatoriamente la necesidad de elaborar un plan económico-financiero. En el caso de que las conclusiones del informe elaborado con la liquidación pongan de manifiesto el incumpli-

iraunkortasunari lotutako helburuak edo gastuaren araua, plan ekonomiko-finantzario bat prestatu eta onartu beharko da.

5. erregela. Toki entitateak sailkatzea.

Tokiko sektore publikoko entitateen inbentarioan herri administrazio gisa sailkatutako mendeko entitateak 1/2013 Foru Arauaren 1.2.a) artikuluan aurreikusitako multzoan bilduko dira.

Tokiko sektore publikoko entitateen inbentarioan sozietate ez-finantzario nahiz sozietate finantzario bezala sailkatutako mendeko entitateak 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aurreikusitako multzoan bilduko dira.

Tokiko sektore publikoko entitateen inbentarioan sailkatu gabe dauden mendeko entitateei, behin-behingo, 1/2013 Foru Arauaren 1.2.b) artikuluan aurreikusitako multzoko entitateentzat ezarritako irizpide berberak aplikatuko zaizkie.

miento de los objetivos de estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera o de la regla de gasto, se deberá elaborar y aprobar un plan económico-financiero.

Regla 5. Clasificación de las entidades locales.

Las entidades dependientes clasificadas como administraciones públicas en el inventario de entes del sector público local se incluirán en el grupo previsto en el artículo 1.2.a) de la Norma Foral 1/2013.

Las entidades dependientes clasificadas como sociedades no financieras o sociedades financieras en el inventario de entes del sector público local se incluirán en el grupo previsto en el artículo 1.2.b) de la Norma Foral 1/2013.

En relación con las entidades dependientes no clasificadas en el inventario de entes del sector público local, les serán de aplicación provisionalmente los mismos criterios establecidos para las entidades del grupo previsto en el artículo 1.2.b) de la Norma Foral 1/2013.